



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

2025-12-19



LEHENDAKARITZAREN  
JARDUEREN TXOSTENA



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

# AURKIBIDEA

1. BARNE ANTOLAKETA ETA  
KOORDINAZIOA

2. HARREMAN  
INSTITUZIONALAK

3. UNIBERTSITATE ARTEKO  
SAREAK

4. KOMUNIKAZIO  
PUBLIKOA

5. PARTAIDETZA ETA  
UNIBERTSITATE BIZITZA

6. BILEREN ETA  
EKITALDIEN ZERRENDA

7. BALORAZIOA

# SARRERA

Txosten honen helburua EHuko Ikasle Kontseiluko Lehendakaritzak 2025–2026 agintaldiaren lehen hilabeteetan garatutako jarduera jasotzea da. Dokumentu publikoa da, 2025eko abenduaren 19ko Ohiko Osoko Bilkuraren dokumentazioarekin batera aurkezten dena, eta bi funtzio betetzea du xede. Alde batetik, Osoko Bilkuraren aurrean eta EHuko ikasle guztien aurrean kontu-ematea. Bestetik, eguneroko bizitza akademikoaren erdigunetik kanpo egiten den lan instituzionala idatziz jasota uztea, askotan ikusezinagoa dena, baina zuzenean eragina duena ikasleон eskubideen defentsan, ikasketa-baldintzetan eta parte-hartzean.

Aldi honetan, Lehendakaritzak ideia erraz bati eman dio lehentasuna. Kontseilua ikasleentzako organo erabilgarria eta presentea izatea, eta proiektuei eusteko gaitasuna izatea. Horrek, erabakiak hartzen diren organoetan egotea, Errektoretzarekin eta Errektoreordetzekin elkarriketa egonkorra eraikitzea, unibertsitateko ordezkaritza-sareekin harremanak mantentzea esan nahi du, eta, aldi berean, Kontseiluaren barne funtzionamendua sendotzea, lana ez dadin une jakinetako bultzaden menpe geratu, baizik eta antolaketa eta jarraipen logika batekin egin dadin.

Txostena ez da kronologikoa. Jarduera-eremuen arabera egituratu da. Hala ere, dokumentuaren amaieran bileren eta ekitaldien zerrenda kronologikoa gehitu da.

Garrantzitsua da agintaldiaren hasiera zehaztasunez kokatzea, praktikan bi une desberdin baitaude agintaldiaren hasiera markatzen dutenak. 2025eko irailaren 24an, Bizkaia Aretoan, Osoko Bilkura egin zen, eta bertan talde berria hautatu zen. 2025eko urriaren 1ean, berriz, Errektoreak izendapen formala egin zuen, Hauteskunde Batzordeak dagokion dokumentazioa Idazkaritza Nagusira bidali ondoren. Agintaldia une horretan hasten da. Ñabardura hau garrantzitsua da antolaketa eta prestaketa lanaren zati bat Osoko Bilkuraren ondoren berehala hastearen zergatia azaltzeko, naiz eta agente instituzional batzuekin harreman formalak izendapena egin ondoren sendotzen diren.

Aldi honetan egindako lana ez da ulertzen Kontseiluko gainerako kideekin eta Lehendakariordetzekin egindako koordinaziorik gabe, bakoitzak bere eremuan egindako bultzadarekin batera.



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

## UPV/EHUko Ikasle Kontseiluko taldea (2025–2026 agintaldia)

- Lehendakaritza
- Idazkaritza
- Diruzaintza
- Lehen Lehendakariordea eta Harreman Instituzionaletarako eta Komunikaziorako Lehendakariordea
- Unibertsitate Politikako Lehendakariordea
- Kanpo Harremanetarako Lehendakariordea
- Araudi eta Kudeaketa Juridikorako Lehendakariordea
- Barne Koordinaziorako Lehendakariordea
- Partaidetza eta Unibertsitate Bizitzarako Lehendakariordea
- Gardentasunerako eta Eraldaketa Digitalerako Lehendakariordea

Egungo koordinazio-taldearen eskumenak eta Lehendakariordetzen eginkizunak kontsultatu daitezke [2025eko azaroaren 19ko Lehendakaritzaren Ebazpenean, zeinaren bidez Lehendakariordetzen eskumen-eskuordetzea garatzen den eta haien funtzioak zehazten diren.](#)



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

# BARNE ANTOLAKETA ETA KOORDINAZIOA



Aldi honetan, Lehendakaritzak Kontseiluaren barne funtzionamendua antolatzeari eta taldea koordinatzeari garrantzia handia eman dio, Barne Koordinaziorako Lehendakariordearekin batera. Lehen lauhilekorako bilera-errutinak eta lan-egutegia ezarri dira. Era berean, irizpide bateratuak zehaztu dira hainbat gai prestatzerakoan, zereginak banatzeko eta martxan dauden proiektuen jarraipena egiteko.

Koordinazio-taldea aldizka bildu da. Bilera horiek baliagarriak izan dira bilera instituzionalak prestatzeko, lehentasunak ordenatzeko eta lanaren koordinazioa egiteko, gai batek Lehendakariordetza bat baino gehiago inplikatzeko duenean. Horrez gain, Idazkaritzarekin eta Diruzaintzarekin berariazko bilerak egin dira funtzionamenduari lotutako kontuetarako, eta gai jakin batek aurretiazko prestaketa edo azterketa zehatzagoa eskatzen zuenean, Lehendakariordetzekin bilera puntualak ere egin dira.

Gardentasunari dagokionez, Batzorde Iraunkorrak ere toki garrantzitsua izan du. Zazpi saio egin dira, eta telematikoki eta modu asinkronoan ere bideratu dira behar izan denean. Saio horietan antolaketa kontuak eta Kontseiluaren jarrerari lotutako gaiak landu dira, eta neurriak onartu dira, besteak beste, etenaldi akademikoak. Guztira, txosten honek jasotzen duen aldian lau etenaldi akademiko onartu dira.



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

# HARREMAN INSTITUZIONALAK



Txosten honek jasotzen duen aldian, Lehendakaritzaren jarduera instituzionala EHUKo Ikasle Kontseiluak unibertsitatearekin berarekin eta, zuzenean zein zeharka, unibertsitate publikoaren sistema baldintzatzen duten kanpoko erakundeekin duen elkarriketa indartzera bideratu da. Helburua lana modu bateratuan egitea izan da. Errektoretzarekin eta Errektoreordetzeekin koordinazio-bilerak eginez, unibertsitateko gobernu-organismoetan parte hartuz eta EHUtik kanpoko espazio instituzionaletan presentzia izanez, bereziki Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren esparruan.

EHUren esparruan, urriaren 8an Bizkaia Aretoan egindako bilera, Errektorearen, Ikasleen eta Konpromiso Sozialaren arloko Errektoreordearen eta Kontseiluko taldearen parte-hartzearekin, lan-dinamika egonkor baten abiapuntua izan zen. Bilera horretan taldea aurkeztu zen eta lehentasunak partekatu ziren. Hortik aurrera, Ikasleen eta Konpromiso Sozialaren arloko Errektoreordearekin aldizkako bilerak egin dira, bai campus desberdinetan, bai EHUKo Ikasle Kontseiluaren egoitzan.

Errektoreordetzarekin izandako elkarriketa horren zati garrantzitsu bat etenaldi akademikoak onartu ondorengo koordinazioarekin lotuta egon da. Txosten honek jasotzen duen aldian lau etenaldi akademiko onartu ziren, 2025eko urriaren 2an, urriaren 15ean, azaroaren 25ean eta abenduaren 11n. Ondoren, Errektoreordetzarekin harremana mantendu da, neurri horien koordinazioa egiteko eta aplikazioari lotutako kontuak argitzeko.

Bilera horiez gain, aurretik aipatu bezala, Lehendakaritzak unibertsitateko gobernu-organismoetan ere parte hartu du. Aldian zehar, Gizarte Kontseiluko osoko bilkuretan, Gobernu Kontseiluko Ekonomia Batzordean, Gobernu Kontseiluetan eta Klaustroan parte hartu da.

Aldi honetan Idazkaritza Nagusiarekin hainbat bilera egin dira. Batetik, abenduaren 4an Bilboko Ingeniaritza Eskolan klaustorako hauteskundeen egutegiari buruzko bilera egin zen. Bilera horretan adierazi zen hasieran aurkeztutako egutegiak ikasleen parte-hartzea zaildu zezakeela, epeen pilaketagatik eta azterketa-aldietatik gertu egoteagatik, eta epeak luzatzea proposatu zen. Azkenean, egutegi berria planteatu zen epeak ahalik eta gehien zabalduz, parte-hartze errealagoa eta eskuragarriagoa errazteko. Bestetik, abenduaren 11n Bizkaia Aretoan estatutuen erreformari buruzko bilera egin zen.

Bilera horren ondoren, Kontseiluari dagokio txostena eta ekarpenak egitea. Bilera horretara, Lehendakaritzaz gain, Unibertsitate Politikako Lehendakariordea, Araudi eta Kudeaketa Juridikorako Lehendakariordea eta Kanpo Harremanetarako Lehendakariordea joan ziren.

Aldi honetan, urriaren 29an Eusko Legebiltzarreko Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza Batzordearen aurrean agerraldia egin zen. Agerraldi horretan unibertsitate sistemaren egiturazko gaiei buruzko ikasleon ikuspegia helarazi zen, bereziki finantzaketari buruz eta horrek azpiegituretan, zerbitzuetan eta ikasketa-baldintzetan dituen ondorioei buruz. Halaber, irisgarritasunarekin, osasun mentalarekin eta laguntza-sistemekin lotutako beharrak azpimarratu ziren, eta langileen baldintzen eta irakaskuntzaren kalitatearen arteko lotura ere bai. Horrelako agerraldiek Kontseilua ikasleon solaskide gisa kokatzen dute, unibertsitate-bizitza baldintzatzen duten markoak erabakitzen diren espazioetan.

Agerraldia hemen kontsulta daiteke: <https://youtu.be/suwScRzyJAg?si=E2Q5-ktaskkVBIrp>

Abenduaren 12an, Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluan parte hartu zen, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan, Vitoria-Gasteizen, Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntzako Sailburuak deituta. Espazio garrantzitsua da unibertsitate publikoaren sistemaren koordinaziorako, eta Kontseiluaren presentziak ikasleon lehentasunak, besteak beste matrikulen eta beken egoera bezalako gaiak, presente egoteko laguntzen du.

Azkenik, urriaren 2an Bilboko Udaleko Gazteria Sailarekin bilera egin zen, martxan dauden proiektuak ezagutzeko eta lankidetzara bideak aztertzeko. Kontseiluaren papera zubi gisa planteatu zen, ikasleengana eta elkarrengana udal baliabideak hurbiltzeko, hala nola laguntzak, espazioen lagapena eta gazte programak, unibertsitate-bizitzarako erabilgarriak izan daitezkeenak.

Oro har, aldiko jarduera instituzionalak EHUrekin barne elkarriketa, unibertsitateko gobernu-organoetako presentzia eta kanpoko espazio



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

instituzionaletako parte-hartzea uztartu ditu. Irizpidea harremanak erabilgarriak izatea eta hauen jarraipena egitea izan da, lan instituzionala aurrerapauso zehatzetan islatu dadin eta ordezkaritza ikasle guztientzat presenteagoa eta argiagoa izan dadin.



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

# UNIBERTSITATE ARTEKO SAREAK



EHUrekin eta administrazioekin izandako harreman instituzionalaz gain, Lehendakariitzak unibertsitate arteko ordezkari-tza-espazioetan ere parte hartu du, betiere Kanpo Harremanetarako Lehendakariordearekin batera. Beste unibertsitateetako ikasle kontseiluekin koordinatzeak irtenbideak partekatzeko, beste esperientzietatik ikasteko eta, behar denean, jarrera bateratuak adosteko aukera ematen du.

Aldi honetan bi esparru nagusitan egin da lan bereziki. G9ko Ikasle Kontseiluan eta CREUPen. G9a autonomia erkidego bakoitzean unibertsitate publiko bakarra diren unibertsitateek osatzen duten espazioa da. Era berean, unibertsitate horietako ikasle kontseiluek euren arteko lana koordinatzeko eta jarduera komunak antolatzeko koordinaziorako espazioa dute. Testuinguru horretan, irailaren 25eko asanblada telematikoa parte hartu zen, eta urriaren 9tik 11ra UPNA-NUP-en egindako V. Ohiko Batzar Orokorrean ere bai, non elkar-tearen barne antolaketari eta partekatutako lan-ildoei lotutako gaiak landu ziren. Batzar horretara, Kanpo Harremanetarako Lehendakariordea eta Unibertsitate Politikako Lehendakariordea joan ziren.

Bestetik, CREUP unibertsitate publikoetako ikasleen ordezkarien koordinakundea da. Ikasle kontseiluek unibertsitate sistemari oso-osorik eragiten dioten eztabaiden aurrean jarrera partekatuak lantzeko aukera ematen digu, eta kasu askotan eztabaida horiek EHUri ere afektatzen diote. Denbora tarte honetan, urriaren 10eko ezohiko Batzar Orokor telematikoa, eta urriaren 16ko saio irekian parte hartu zen. Azaroaren 4tik 7ra Bartzelonan egin zen CREUPen 78. Ohiko Batzar Orokorrera joan zen, Kanpo Harremanetarako Lehendakariordearekin eta Barne Koordinaziorako Lehendakariordearekin batera. Batzar horretan, barne gaiak lantzeaz gain, dokumentuak eta jarrera instituzionalak ere landu ziren, besteak beste, unibertsitaterako sarbidea, prezio publikoak, unibertsitateko gobernantza, osasun mentala eta kalitatea bezalako gaien inguruan. Edonola ere, CREUPen eztabaida eta akordioen xehetasunak Kanpo Harremanetarako Lehendakariordearen txosten espezifikoan jasoko dira.



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

Unibertsitate arteko harreman horien artean, urriaren 16an Murtziako Unibertsitateko Ikasle Kontseiluak eskatutako bilera ere artatu zen. Halako harreman bilateralak baliagarriak dira irizpideak partekatzeko eta zalantza praktikoak argitzeko, bereziki barne prozedurei, ordezkaritzari eta koordinazio instituzionalari lotutako kontuetan.



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

# KOMUNIKAZIO PUBLIKOA



Aldi honetan, komunikazio publikoa Kontseiluaren jarduera azaltzeko eta jarrerak eta akordioak modu argian helarazteko lan-ildo inportante bat izan da.

Testuinguru horretan, Lehendakaritzak hiru agerraldi egin ditu komunikabideetan, agintaldiaren hasierarekin eta lehentasunen aurkezpenarekin lotuta. Irailaren 25ean Cadena SER irrati-katean, talde berriaren erronkei eta lan-ildoei buruzko elkarrizketa egin zen. Urriaren 3an Radio Euskadin, Lehendakaritzaren hautaketari eta ikasturte honetarako lehentasunei buruzko elkarrizketa egin zen. Hiru agerraldi horiez gain, noizean behin beste komunikabide batzuetan ere parte hartu da.

Barne mailan, Kontseiluaren komunikazio arloarekin koordinatuta egin da lan, Lehen Lehendakariordearekin eta Erakunde Harremanetarako eta Komunikaziorako Lehendakariordearekin eta Gardentasunerako eta Eraldaketa Digitalerako Lehendakariordearekin batera. Lan-bilerak egin dira edukiak antolatzeke, komunikazio-lehentasunak ordenatzeko eta kanpainak koordinatzeko. Helburua ikasleei baliagarria zaien komunikazio argia eta koherentea mantentzea izan da.

Zehazki, aldi honetan sei prentsa-ohar prestatzeko lanean parte hartu da. Prentsa-oharrak Lehen Lehendakariordeak eta Erakunde Harremanetarako eta Komunikaziorako Lehendakariordeak idatzi eta koordinatu ditu, eta Lehendakaritzak ikuspegi instituzionalean, mezuen definizioan eta azken berrikuspenean ekarpenak egin ditu. Ohar horien bidez agintaldiaren hasierako gai garrantzitsuak eta Kontseiluaren erabaki esanguratsuak zabaldu dira. Zehazki, Lehendakaritzaren hautaketari eta lan-programaren aurkezpenari buruzko komunikazioak argitaratu ziren, Lehendakaritzaren behin betiko aldarrikapenari eta taldearen osaerari buruzkoak, urriaren 15eko etenaldi akademikoaren deialdiari buruzkoa, egun horren ondorengo balorazio instituzionala, Eusko Legebiltzarrean egingo zen agerraldiaren iragarpena eta agerraldiaren ondorengo oharra, unibertsitate publikoaren finantzaketa eta erronkak ardatz hartuta.

Azkenik, atal honetan jasotzen da, halaber, harreman eta lankidetzak bideak ireki ditzaketen gizarte eta gazte espazioetan izandako presentzia instituzionala, besteak beste Global Shapers Bilbo elkartearen 10. urteurreneko ekitaldira joatea, Terminal ZAWP-n (Zorrozaurre, Bilbo).



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

# PARTAIDETZA ETA UNIBERTSITATE BIZITZA



Aldi honetan, Lehendakaritzak ikasleen partaidetzarekin eta unibertsitate-bizitzarekin lotutako hainbat jardueratan parte hartu du, unibertsitate komunitatearentzat garrantzitsuak diren ekitaldi eta espazioetan. Atal honetan nagusienak jasotzen dira, ekimen bakoitzaren antolaketa-xehetasun guztietan sartu gabe, hori dagokien Lehendakariordetzen txostenetan garatzen baita.

Arlo honetan, ardatz nagusia Ikasleen Ordezkarien XIII. Formakuntza Jardunaldiak izan dira. Jardunaldiak 2025eko azaroaren 21etik 23ra egin ziren. Azaroaren 21ean inaugurazioa egin zen Bizkaiko Campuseko Liburutegi Eraikineko Ikasletxean, eta ondorengo egunetako jarduna Morgako egoitzan garatu zen. Lehendakaritzak inaugurazioan parte hartu zuen, ikasleen partaidetzari buruzko mahai-ingurua gidatu zuen, parte-hartzearen erronkak eta oztopoak hizpide, eta hainbat saio formatibotan ere parte hartu zuen, barne funtzionamenduari eta taldeen lanari lotutako edukiak landuz. Puntu honetan, eskerrona adierazi nahi zaie antolakuntza-taldeari, prestakuntza eman duten pertsonei eta parte-hartzaile guztiei, jardunaldien benetako balioa aurretiko lanaren eta inplikatzaren diren pertsonei konpromisoaren arabera baita. Edukien, metodologiaren eta ebaluazioaren deskribapen osoagoa Partaidetza eta Unibertsitate Bizitzarako Lehendakariordearen txostenean eta Batzorde Iraunkorrek onartutako XIII. Formakuntza Jardunaldien proiektuan kontsulta daiteke.

Jardunaldiez gain, urriaren 22an Ikasletxean egindako Elkarteen Forora joan zen Lehendakaritzak, gonbidatu gisa. Ekimen hau Ikasleen eta Konpromiso Sozialaren arloko Errektoreordetzak bultzatzen du, eta bertan Errektoreordetzako taldea eta EHUKo ikasle elkarteak elkartzen dira. Foroa espazio egonkor gisa planteatzen da koordinatzeko, elkarten arteko sinergiak sortzeko eta errektoretza taldearekin komunikazio bide zuzena izateko. Era berean, ikasle guztientzat garrantzitsuak diren gaiei buruzko eztabaida-gune gisa ere funtzionatzen du, diagnosiak, beharrak eta proposamenak partekatzeko aukera emanez, unibertsitate komunitatearen barruan dauden errealitate desberdinetatik abiatuta.

Giza eskubideekin eta bizikidetzarekin lotutako mobilizazio eta ekitaldi instituzionalei dagokienez, irailaren 29an Leioako Campusean egindako paro instituzionalean parte hartu zen, eta urriaren 7an Bizkaia Aretoan EHUGunek antolatutako jardunaldira, "Palestina. Genozidio eta militarismoari planto" izenburupean, joan zen. Azaroaren 17an Errektoretza eraikinean egin zen Palestinari babesa eta kode etikoa lantzeko lan-taldearen lehen bileran parte

hartu zen, eta azaroaren 15ean, Kontseiluaren ordezkari gisa, San Mamesen Euskal Selekzioaren eta Palestinako selekzioaren arteko futbol partidara joan zen.

Azkenik, azaroaren 25ean, Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Egunean, 11:00etan Leioako Campusean egindako paro instituzionalean parte hartu zen. Egun berean, Batzorde Iraunkorrak onartutako etenaldi akademiko bat deitu zen.



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

# BILEREN ETA EKITALDIEN ZERREDA



**24/09 – 16:30** EHUko Ikasle Kontseiluaren Osoko Bilkura. **[Bizkaia Aretoa]**

**25/09 – 18:00** G9ko Ikasle Kontseiluko Ohiko Bilkura Orokorra. **[Telematikoa]**

**29/09 – 11:00** Palestinaren aldeko etenaldi instituzionala. **[Bizkaiko Campusa]**

**30/09 – 17:00** Komunikazio Taldearen bilera (Lehen Lehendakariordea + Eraldaketa Digitalerako Lehendakariordea). **[Psicologia Fakultatea, Gipuzkoa]**

**02/10 – 10:00** Bilboko Udaleko Gazteria Arloaren bilera. **[Telematikoa]**

**03/10 – 08:30** Radio Euskadin elkarrizketa. **[Vitoria-Gasteiz]**

**06/10 – 12:00** Ebaluazio Zerbitzuaren bilera (irakaskuntza-inkestak). **[Edificio Biblioteca, Bizkaiko Campusa]**

**06/10–08/10** Batzorde Iraunkorra ezohiko eta asinkronoa. **[Telematikoa]**

**08/10 – 09:00** Bilera Errektorearekin + Ikasleen Errektoreordetza eta Konpromiso Soziala + taldea. **[Bizkaia Aretoa]**

**25/09 – 12:25** Cadena SER-en elkarrizketa. **[Bilbo]**

**26/09 – 14:00** Batzarra (Unibertsitate Politikako Lehendakariordea): bekak eta prezio publikoak. **[Ikasle Kontseiluko Egoitza, Leioa]**

**29/09 – 15:15** Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako Errektoreordearekin bilera (Etenaldi akademikoa).

**01/10** Errektoreak presidentea izendatzea.

**02/10 – 15:00** Batzarra XIII Formakuntza Jardunaldiak. **[Ikasle Kontseiluko Egoitza, Leioa]**

**03/10 – 15:00** Koordinazio-taldearen bilera. **[Ikasle Kontseiluko Egoitza, Leioa]**

**06/10 – 13:30** Bilera Unibertsitate Politikarako Lehendakariordearekin: Beken eta prezio publikoen azterketa. **[Ikasle Kontseiluko Egoitza, Leioa]**

**07/10 – 09:00** EHUGune "Palestina. Genozidio eta militarismoari planto. **[Bizkaia Aretoa]**

**08/10 – 11:30** Gizarte Kontseiluko Osoko Bilkura. **[Bizkaia Aretoa]**

**08/10–10/10** Batzorde Iraunkorra  
ezohikoa eta asinkronoa.  
[Telematikoa]

**09/10 – 11:00** Gobernu Kontseilua EHU.  
[Bizkaia Aretoa]

**10/10 – 16:00** CREUP 28. Ezohiko Batzar  
Nagusia (Telematikoa). [Telematikoa]

**13/10 – 15:30** Koordinazio-taldearen  
bilera. [Ikasle Kontseiluko Egoitza,  
Leioa]

**14/10 – 17:30** Erakunde  
Harremanetarako eta  
Komunikaziorako lehen  
lehendakariordearekin bilera  
[Telematikoa]

**16/10 – 11:30** Ikasleen eta Konpromiso  
Sozialaren Errektoreordetzarekin bilera.  
[Arabako Campusa]

**16/10 – 17:00** Batzarra Formakuntza  
Jardunaldiak. [Telematikoa]

**17/10 – 09:00** Lan-bilera  
Idazkaritzarekin. [Telematikoa]

**20/10 – 09:00** Batzarra Eraldaketa  
Digitalerako lehendakariordea.  
[Telematikoa]

**09/10 – 10:15** Batzorde Ekonomikoa -  
Gobernu Kontseilua. [Bizkaia Aretoa]

**09–11/10** V Ohiko Batzar Nagusia G9.  
[UPNA-NUP, Iruña]

**13/10 – 09:00** Lan-bilera  
(Lehendakaritza + Eraldaketa Digitala).  
[Telematikoa]

**14/10 – 16:00** Batzarra (Formakuntza  
Jardunaldiak). [Telematikoa]

**15/10** Etenaldi akademikoa.

**16/10 – 15:00** Murtziako  
Unibertsitateko Ikasle Kontseiluarekin  
bilera. [Telematikoa]

**16/10 – 18:00** CREUP saio irekia  
(sarbide unibertsala). [Telematikoa]

**17/10 – 13:00** Eusko Legebiltzarreko  
agerraldia prestatzeko bilera  
(Unibertsitate Politikarako  
Lehendakariordearekin) [Ikasle  
Kontseiluko Egoitza, Leioa]

**20/10 – 16:00** Diruzaintzarekin bilera.  
[Telematikoa]

**22/10 – 13:00** Elkarteen Foroa.  
[Ikasletxea, Leioa]

**23/10 – 11:00** Bilera Bizkaiko  
Campuseko eta Komunikazioko  
Errektoreordetzarekin. [Ikasle  
Kontseiluko Egoitza, Leioa]

**23/10 – 15:00** Kontseiluaren Osoko  
Bilkuraren bilkura irekia (ekarpenak,  
agerraldia). [Ikasle Kontseiluko  
Egoitza, Leioa]

**23/10 – 18:30** Ohiko batzorde  
Iraunkorra. [Ikasle Kontseiluko  
Egoitza, Leioa]

**24/10 – 15:30** Talde Bilera. [Ikasle  
Kontseiluko Egoitza, Leioa]

**24/10 – 20:00** Global Shapers Bilboa 10.  
urteurrena. [Terminal ZAWP, Bilbo]

**27/10 – 11:00** Eusko Legebiltzarreko  
agerraldia prestatzeko bilera  
(Unibertsitate Politikarako  
Lehendakariordearekin). [Ikasle  
Kontseiluko Egoitza, Leioa]

**28/10 – 11:00** Eusko Legebiltzarreko  
agerraldia prestatzeko bilera  
(Unibertsitate Politikarako  
Lehendakariordearekin). [Ikasle  
Kontseiluko Egoitza, Leioa]

**29/10 – 13:30** Agerraldia Eusko  
Legebiltzarrean. [Vitoria-Gasteiz]

**03/11 – 15:30** Talde Bilera. [Ikasle  
Kontseiluko Egoitza, Leioa]

**04–07/11** CREUP 78<sup>a</sup> Ohiko Batzar  
Nagusia. [Universidad de Barcelona]

**04/11–06/11** Batzorde Iraunkorra  
extraordinaria asíncrona.  
[Telematikoa]

**10/11 – 11:30** Batzarra Formakuntza  
Jardunaldiak. [Ikasle Kontseiluko  
Egoitza, Leioa]

**10/11 – 19:00** Batzarra Formakuntza  
Jardunaldiak. [Telematikoa]

**11/11** Batzarra (Prezio publikoak).  
[Ikasle Kontseiluko Egoitza, Leioa]

**11/11** Komunikazioko lantaldeko  
bilera. [Campus Gipuzkoa]

**12/11 – 11:30** Gizarte Kontseiluko  
Osoko Bilkura. [Bizkaia Aretoa]

**13/11 – 19:30** Batzorde Iraunkorra  
ordinaria. [Telematikoa]



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

**14/11 – 15:30 Talde Bilera. [Campus Álava]**

**15/11 – 19:00 Euskal Selekzioa– Palestina partida. [San Mamés]**

**17/11 – 10:00 Palestinako eta kode etikoa lantaldea. [Errektoretza eraikina, Leioa]**

**17/11 – 15:30 Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako Errektoreordearekin bilera+ Partaidetza zuzendaria. [Ikasle Kontseiluko Egoitza, Leioa]**

**19/11 – 15:30 Batzarra Formakuntza Jardunaldiak. [Telematikoa]**

**20/11 – 10:00 EHUko Klaustroa. [Bizkaia Aretoa]**

**21/11 – 15:30 Inaugurazio ekitaldia XIII Formakuntza Jardunaldiak. [Ikasletxea, Leioa]**

**21–23/11 XIII Formakuntza Jardunaldiak. [Morga]**

**24/11 – 15:30 Talde Bilera. [Ikasle Kontseiluko Egoitza, Leioa]**

**25/11 – 11:00 Etenaldia Instituzionala. [Bizkaiko Campusa]**

**25/11 Etenaldi akademikoa**

**04/12 – 15:30 Batzarra Idazkari Nagusia [Bilboko Ingeniaritza Eskola]**

**04/12 – 17:00 Balorazio bilera Formakuntza Jardunaldiak. [Telematikoa]**

**05/12 – 15:30 Talde Bilera. [Ikasle Kontseiluko Egoitza, Leioa]**

**10/12 – 14:00 Batzarra Gerentzia + Ikasleen eta Konpromiso Sozialerako Errektoreordea. [Bizkaia Aretoa]**

**11/12 – 09:15 Batzorde Ekonomikoa - Gobernu Kontseilua. [Bizkaia Aretoa]**

**11/12 – 10:00 Gobernu Kontseilua EHU. [Bizkaia Aretoa]**

**11/12 – 15:30 Bilera Idazkari Nagusia (Estatutuen erreforma). [Bizkaia Aretoa]**

**12/12 – 11:00 Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseilua. [Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz]**

**12/12 – 14:00 Batzarra Komunikazio Taldea. [Carlos Santamaría, Gipuzkoa]**



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

**15/12 – 13:00** EHUko Hauteskunde  
Batzordea. **[Telematikoa]**

**15/12 – 15:00** Bilera diruzaintza.  
**[Telematikoa]**


**16/12 – 16:00** Bilera Ikasleen  
Errektoreordetzarekin eta Konpromiso  
Sozialarekin. **[Ikasle Kontseiluko  
Egoitza, Leioa]**

**17/12 – 12:00** Gizarte Kontseiluko  
Osoko Bilkura. **[Bizkaia Aretoa]**



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

# BALORAZIOA



Txosten honek jasotzen duen aldia 2025–2026 agintaldiaren hasierari dagokio. Hilabete hauetan, Lehendakaritzaren lana bi ardatzetan oinarritu da. Batetik, Kontseiluaren barne funtzionamendua eta taldeen koordinazioa. Bestetik, jarduera instituzionala, bai EHUren barruan, bai EHUtik kanpo.

Barne mailan, lan-erritmo egonkor bat ezarri da, eta zereginak modu operatiboan banatu dira, bilerak prestatu ahal izateko, gaiak jarraikortasunez izapidetu ahal izateko eta martxan dauden prozesu eta proiektuen jarraipena egiteko. Horrez gain, Batzorde Iraunkorra zazpi aldiz bildu da, eta behar izan denean telematikoki eta modu asinkronoan ere egin da lana. Testuinguru horretan lau etenaldi akademiko onartu ziren, 2025eko urriaren 2an, urriaren 15ean, azaroaren 25ean eta abenduaren 11n.

Arlo instituzionalean, EHUKo organoetan presentzia eta bilera-sorta bat mantendu da. Bereziki aipatzekoa da urriaren 8ko bilera, Errektorearekin eta Ikasleen eta Konpromiso Sozialaren arloko Errektoreordearekin, eta ondoren Errektoreordetzarekin egin diren aldizkako bilerak. Era berean, unibertsitateko gobernu-espazioetan parte hartu da, hala nola Gizarte Kontseiluan, Gobernu Kontseiluan, Gobernu Kontseiluko Ekonomia Batzordean eta Klaustroan. Aldi honetan, gainera, Idazkaritza Nagusiarekin bi gai zehatz landu dira. Klaustorako hauteskundeen egutegia, azkenean luzatu zena ikasleen parte-hartzea errazteko. Eta estatutuen erreformaren prozesuaren jarraipena, Kontseilua hasieratik presente eta aktibo egon den prozesua.

EHUtik kanpo, unibertsitate sistemarekin eta haren marko politikoarekin lotutako espazio instituzionaletan parte hartu da. Nabarmendu behar da Eusko Legebiltzarrean egindako agerraldia, non ikasleriaren lehentasunak eta kezkak helarazi ziren finantzaketari, zerbitzuei eta ikasketa-baldintzetan duten eraginari buruz. Halaber, Eusko Jaurlaritzak deitutako Unibertsitate Irakaskuntza Publikoa Koordinatzeko Kontseiluan parte hartu zen. Bilboko Udaleko Gazteria Arloarekin bilera ere egin zen, lankidetzak bideak aztertze eta udal baliabideak ikasle elkarteekin sareari hurbiltzeko.

Partaidetzan eta unibertsitate-bizitzan, jarduera nagusia Ikasleen Ordezkarien XIII. Formakuntza Jardunaldiak izan dira. Lehendakaritzak inaugurazioan parte hartu zuen, mahai-inguru bat gidatu zuen eta saio formatiboetan ere parte hartu zuen. Halaber, Ikasleen eta Konpromiso Sozialaren arloko Errektoreordetzak bultzatutako Elkarteekin Forora joan zen, elkarteekin koordinatzeko eta ikasleek

partekatzen dituzten gaiei buruz eztabaidatzeko espazio gisa. Gainera, aldian zehar presentzia instituzionala mantendu da bizikidetzarekin, giza eskubideekin eta konpromiso sozialarekin lotutako ekitaldi eta espazioetan.

Komunikazio publikoan, Kontseiluaren jarduera ikusgarri egiteko lana egin da, argitasuna eta koherentzia oinarri hartuta. Lehendakaritzak Cadena SERen eta Radio Euskadin elkarriketak egin zituen. Barne mailan, dagokion arloarekin koordinatuta egin da lan, eta sei prentsa-ohar lantzen lagundu da. Prentsa-oharrak Lehen Lehendakariordeak eta Harreman Instituzionaletarako eta Komunikaziorako Lehendakariordeak idatzi eta koordinatu ditu, eta Lehendakaritzak ekarpena egin du ikuspegi instituzionalean, mezuetan eta azken berrikuspenean.

Egindako lana taldearen funtzionamendu koordinatuan oinarritu da. Lehendakaritzak aitortu nahi du Idazkaritzak eta Diruzaintzak eguneroko lanean egindako ekarpena, eta Lehendakariordetza guztiek beren eremuetan egindako lana. Barne koordinazioa bereziki garrantzitsua izan da bilera instituzionalak prestatzeko eta jarraipena eskatzen duten zereginak aurrera eramateko. Partaidetzan eta unibertsitate-bizitzan, antolaketa-lana eta prestatzaileek eta parte-hartzaileek erakutsitako inplikazioa funtsezkoak izan dira jardunaldiak aurrera ateratzeko. Komunikazioan, lan taldeen arteko koordinazioak aukera eman du ildo jarraitu bat mantentzeko eta lehentasunak ordenatzeko.

Ikasturterako programan jasotako konpromisoei dagokienez, lehen tarte honetan aurreikusita zeuden hainbat lan-ildo abiarazi edo bultzatu dira. Unibertsitateko organoetan eta kanpoko ordezkaritza espazioetan presentzia instituzionala indartu da. Berariaz landu da beken eta prezio publikoen analisia, lan-bileren eta edukien prestaketaren bidez. Estatutuen erreformaren jarraipena egin da, Idazkaritza Nagusiarekin bileren bidez eta aurretiko barne lanaren bidez. Unibertsitate arteko sareetan ordezkaritza aktiboa mantendu da, bai G9an, bai CREUPen. Partaidetzan eta unibertsitate-bizitzan, XIII. Formakuntza Jardunaldiak egitea ikasle ordezkartzaren prestakuntzari eta elkarguneak sortzeari emandako lehentasunaren ondorio zuzena izan da.

Dena den, ikasturteko hurrengo tarterako lan-ildo irekiak geratzen dira. Batzuk jarraipenezkoak dira, eta beste batzuek lan berria hastea eskatzen dute. Erronka gisa, honako hauek azpimarratzen dira.

- Estatutuen erreformaren jarraipena mantentzea eta ikasleen parte-hartzea prozesuaren fase guztietan bermatzea, behar denean beste eragile eta espazioekin koordinatuz.
- Beken eta prezio publikoen inguruko lana jarraitzea, proposamen zehatzekin eta dagokien espazioetan elkarriketa eginez.
- Elkarrekin harreman-espazioak sendotzea eta ordezkaritza mailen arteko koordinazioa indartzea, unibertsitate-bizitza ekimen puntualen menpe bakarrik egon ez dadin.
- Komunikazio kanalak hobetzen jarraitzea, bereziki ikasleei akordioei, eskubideei, zerbitzuei eta agendari buruz aldizka informatzeko aukera ematen duten tresnak indartuz.
- Alderdi politikoekin eta eragile politikoekin harremanei dagokienez, Kontseilua zain dago unibertsitateen lege autonomikoaren erreforma aktibatu eta lantzen hasten den arte. Une horretan, harreman- eta lan-erronda bat abiatzea aurreikusten da, prozesuan ikasleen interesak kontuan hartzen direla bermatzeko.

Txosten honen edukiei buruzko edozein argibide, zehaztapen edo kontsulta egiteko, idatziz bidali daiteke honako helbide honetara:

[ikasle.kontseilua@ehu.eus](mailto:ikasle.kontseilua@ehu.eus).

Leioan, 2025eko abenduaren 19an.

*Iñigo Ugedo Vicario*

Lehendakaria / Presidente

EHUko Ikasle Kontseilua / Consejo de Estudiantes de la EHU



IKASLE  
KONTSEILUA  
CONSEJO DE  
ESTUDIANTES

